

Txostena niri buruz

Grégoire Bouillier

ANGEL ERROK *itzulia*



PASAZAITE
INPORTAZIOKO LIBURUAK

Jatorriko izenburua:
Rapport sur moi

© Éditions Allia, Paris, 2002

© itzulpen honena, 2012, Angel Erro

© argitalpen honena, 2012, Pasazaitte liburuak

Harrobieta enparantza 12
20017 Donostia - Gipuzkoa
www.pasazaitte.com
liburuak@pasazaitte.com

Maketazioa: Astidiseinua
Sailaren diseinua: La Personnalité

ISBN: 978-84-940331-2-4
Legezko gordailua:

Inprimatzailea: Leitzaran grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain-Gipuzkoa

Dideroten lanetako bat Federiko II.aren eskuetara iritsi zen. Enperadoreak hitz hauek aurkitu zituen bertan eskaintza gisa: “Gazte jendeari...”. Une hartan liburua itxi zuen, ulertu baitzuen ez zela berarentzat.

Ligneko Printzea



Haurtzaro zorionsua izan dut.

Igande arratsalde batean, gure ama sartu da anaia eta biok, nor bere txokoan, jolasean ari garen gelan: “Semeok, uste duzue maite zaituztedala?”. Ahots indartsua du; sudur zulo itzelak. Anaiak itzulingururik gabe erantzun du. Ni, nire zazpi urteetatik behera neure burua bota ez bota nabil. Abaguneaz ohartu naiz eta, aldi berean, ondorioen beldur naiz. Azkenean marmar batean diot: “Agian gehiegixko maite gaituzu.” Amak ikaturik begiratu dit. Une batez babesgabe gelditu da, leihora jo du, braust ireki eta bosgarren solairutik bere burua botatzen saiatu da. Zaratak asaldaturik, gure aitak balkoian heldu dio hanka bat airean duela. Amak garrasi eta indar egin du. Oihuek patioan burrunba egin dute. Aitak harengandik tiratu du beldurrik gabe eta barrurantz herrestan eraman du zaku baten modura. Liskarrean gure amaren buruak hormaren kontra jo eta klonk egin du. Horman ikusgarri, odol arrasto txiki bat eszena honen lekukoa da luzaroan. Noizbait, haren inguruan errotuladore beltzez zirkuluak marraztu eta dardoetan jolasteko itu moduan erabiliko dut; erdian asma-tzean, une llabur batez izurik gabe hitz egiteko ahalmena berreskuratu uste dut.

Gure aita ezagutu zuenean, amak hamasei urte zituen, hark hemezortzi. 1956an izan zen, Bois-Colombeseko

txalet batean emandako festa ustekabeko batean, hara gure aitaren familia aldatua baitzen 39ko gerraren ostean. Aitak jaia animatzen zuen zuzenbideko ikaskideekin osatutako jazz orkestra txiki batean bateria joaz. Amak harrikoa egiten lagundu zion; urtebete beranduago ezkondata zeuden eta nire anaia jaio zen, Olivier deitu zutena, arrazoi berezirik gabe, nik dakidala.

Gure aitak apenas izan zuen bere semea ikusteko astia: armadak deitu zuen soldadutza egiteko. Ez deitua izateko unerik onena: Aljeriako gerla oraindik izengabeak ia hiru urtez uniformeak jantzarazi zion, arauzko hemezortzi hilabeteren ordean. Tizi-Uzun, Kabilia Handiaren hiriburuan, non, berak zioenez, ez baita gauza handirik gertatzen, kuarteleratu zuten.

Gure ama nahigabetu zen bere senarrarengandik hain azkar banatu izateaz. Erabakia azkar hartu zuen: haurtxoa aita-amaginarrebekin utzi eta Aljeriara gizon maitatuarekin bat egitera abiatu zen. Hamazazpi urteko gaztetxoa izanik, holako balentriak ez ziren ohikoak garai hartan.

Bertan elkar maite zuten. Eta gehienbat behin baino hirutan, Tizi-Uzuko ospitaleko sendagile bat nire amaren xarmaren sarean (ez baitzen gutxi) erori zelako; berehala gehitu zen bien jolasetara; hirurentzako jolas horietako batean sortu ninduten.

“Maitasunaren semea haiz”, behin eta berriz esan zidan amak nire haurtzaro osoan zehar, horrek zer esan nahi zuen nik jakin ez arren eta gehienbat kezkarria bazen ere. Jendaurrean, nire azalaren mate kolorea eta Bouilliertarrekin zerikusirik ez nuela aipatzea gogoko izaten zuen. Puskaz

beranduago, eta nik eskatuta, nire sorkuntzaren zertzeladak jakinarazi zizkidanean, amaitu zuen esanez aldizkari batean irakurria zuela ezen, bi gizona kok emakume baten baginan isurtzen badute, haien espermatozoideak, elkarren kontra lehiatu ordez, obulua ernaltzeko eta mutante bat sorrarazteko batzen direla.

Orobat kontatu zidan aitari oso ongi tentetzen zitzaiola eta homosexuala zela; beranduago, nahi izan zidan sine-sarazi niri atsegina emateko esan zuela.

Gure amak bazuen noren antza izan: hamabi urte inguru izango zituen, bere anaia, bera baino bi urte zaharragoa, mahaitik altxatu eta aitari, txikikeria bategatik errieta egin baitzion, honakoa bota zionean: “Zu ez zara gure benazko aita!”. Izan ere, beraien osaba zen, koinataren ohean bere anaiaren tokia isilean hartu zuena, hau Bigarren Mundu Gerran desagertu ondoren. 1939. urte bukaeran sorturik, gure amak nekez izan zuen bizitza eman ziona ezagutzeko parada. Hura nolabait gogoan izango zuen, noiz eta, bere semea jaio berritan, gerlara joandako gizon batekin Aljerian elkartzea erabaki baitzuen. Eta haren aitaren irudian anaia batek bestea ordezkatu zuen modu berean, bi gizonen besoetan amatu zen bera bigarrenez.

Anaia batengandik bestearengana, gure amonaxo P erard batekin bizi izan zen beti eta ez zuen abizenez aldatu behar izan, munduaren begien aurrean ondo ezkondata zegoela iruditu ahal izateko. Azken finean, dena familia barruan gelditzen zen eta, alderdi administratiboan, gauzak errazturik suertatzen ziren. Desagertutakoaren arrasto guztiak ezabatu behar izan ziren, alabaina, eta horrek beti nolabaiteko nekea zekarren, aldi berean aita batez, senar batez eta

anaia batez isiltasuna mantendu behar baitzen. Seme-alabak nahaste-borraste honetan hazi ziren.

Urteetan, haietako batek ere ez zuen egiaren susmorik izan, seme nagusia izan ezik, haren oroitzapen nahasiak ezin baitziren beti bortxatu. Bizitza gezur bat oinarri zuela jakitea “shock bat” izan zen amarentzat, hark oraindik gogoan duenez. Hau dioenean, lasai asko niri aurpegiari begiratzeko gai da.

Nire aitonari dagokionez, gizon atsegina, itzala balu bezala toki guztietara jarraitzen zion sasiko txakurtxo batek zora eginda zuen. *Soiuz* sobietarraren omenez *Satelite* izena ipini omen zion; jatorriari begira, deiturak bete-betea asmatzen zuen, kate motzean lotuta zeukan egia bere izenez izenda zezakeelako, egunean hogeitun bat aldiz, inork, ezta berak ere, susmorik hartu gabe. Sateliteren atzean garrasika zebilenean, *Satsu* deitzen zion¹.

Frantses zaharrean, Pérardek “aita txarra” esan nahi du.

Bouillierek, berriz, “urki basotxo”. Zein enborretik ezpalekoa naizen, beraz, badakit, guztien eskura ez dagoen zerbait.

¹ Egileak *Satellite* eta *Saleté* (lohitasun edo satsukeria) hitzen artean egiten duen jokoa ahal bestean honela eman dugu (I.O).



Jaio nintzenean, izena Nicolas izango nuela adostua zegoen; baina Brigitte Bardot Nicolas batez erditu zenez, berehala gure amak izena Grégoire bihurtu zuen. Horrela, “esna dagoena, beilatzen duena” bilakatu nintzen, Grégoireren etimologia hori baita, grezierazko *egregorien* aditzetik eratorria. Nicolas deitu izan banintz, “herriaren garaipena” erdietsiko nuen, zeinak ez baitakar patu berdina. Neure burua hortaz konbentzitzeko, denbora batez Nicolas izeneko baten laguna egin nintzen, gure adiskidetasunari bere izenak zenbat zor zion inoiz jakinarazi gabe. Herria ez zuen batere gogoko, eta gutxiago haren garaipena.

Ohituraren kontra, gurasoek ez zidaten Grégoire izenaren ondoren besterik jarri. Ez zitzaidan inolako arbasori, on edo txar, lotu. Memoria ohoratu beharreko inolako hildakoari. Egun batean nik neuk izendatu behar izan nuen neure itzala.

Amaren sabeletik irriz atera omen nintzen. Emaginak lehiatzen ziren, ia-ia, nitaz arduratzeko: ez zuten sekulan umerik ikusi bizitzara sartzeaz hain pozik.

Hiru egun geroago, kilo bat baino gutxiago pisatzen nuen eta nire egoera beldurgarria zen. Amak ezin zidan eradoski, bularrean abzesu bat zuelako eta nik Guigoz esne industrialara arbuiatzen nuen irmoki. Behi esneak ere,

asteme esneak bezala, ez zuen arrakastarik izan. Egun bat gehiago biziko ez nintzelakoan zeuden, noiz eta ia ausaz, ama ospitalearen ingurumarietan aurkitu zuten ahuntz baten esnea irenstera amore eman bainuen. Jenio txarraren ospea duen animalia honi zor diot bizirik iraun izana.

Tizi-Uzun, jaio nintzen egunean, itzalean 40 gradu egiten zuen. “Egun hartan adina ez dut inoiz sufritu”, kontatzen du, pozarren, amak. Gogoko izaten du gogoratzea haurdunaldiaren azken hilabeteetan hainbeste hazi nintzela, bazkalorduetan platera sabel gainean orekan koka baitzezakeen.

Lehen semearekin bezala, amak inoiz ez zuen zalantzarik izan mutiko baten esperantzetan zela. “Neska bat edukitzeko ezgauza naiz”, dio harrotasunez. Horrek ez zion galarazten niri ilea bere Babyllisekin kizkurtzea, gogoia izaten zuenean. Orobat dio inoiz ez zuela hirugarren semerik eduki nahi izan, desitxuratua edo mongolikoa aterako zela sinetsita. Eta inoiz entzun izan diot irri karkailen artean esanez: “Untxi hutsa naiz”, amodioa egin ahala haurdun gelditzeko bere dohaina aditzera emanez, eta zenbaitetan baita hilekoa zue-
nean ere. Orain ez da oroitzen zenbatetan abortatu duen. Hamabost aldiz baino gehiagotan, aitortzen du eragozpenik gabe. Batzuetan aitak laguntzen zion. Elkarrekin teknika ezberdinak esperimentatu zituzten. Arratsetan izaten zen, anaia eta biok eskolan geundela. Behin berak bakarrik egin behar izan zuen; gure amak baginan hainbat litro merkromina sartu zituen umekia botatzeko. *In extremis* salbatu zuten barne odoluste batetik.

Nire jaiotzak amaiera eman zion gurasoen kapitulu aljeriarrari. Bere ardurapean bigarren seme bat izanik,

gure aita soldadutzarekiko betebeharretatik libre gelditu zen; gerla, harentzat, bukatua zen, tiro bakar bat ere egin gabe. Nire munduratzearen lehen ondorioa izan zen hura. Gurasoak oraindik poztu zitezkeen gertaera zoriontsu bat sortu izanaz, “gertaera” (orduan deitzen zitzaizenez) egiazki ez hain zoriontsuen erdian. Aldiz, plazer hutsez ohe batean gauzatzen zuten frantziar-aljeriar adiskidetze hari uko egin behar izan zioten. Izan ere, amak ez zuen Kabilia Handian gelditu nahi izan, maitaleak erregutzen zion arren, eta hirukotea bereizi zen, inoiz gehiago ez existitzeko, ez bada nire amaren begietan niri begiratzen didanean.

Denbora luzez amak ez zidan Tizi-Uzuko ospitaleko medikuaren izena esan nahi izan. Azkenik aitortu zidanean, ohar liburu batean idatzi eta utzi nion horretan pentsatzeari. Inoiz ez naiz ahalegindu bera ezagutzen. Bera ere ez.

Nire jaiotzaren zirkunstantzietatik, besteak beste, bere egiazko izena aitortzen ez zuen gerra baten semea izateko irudipena gelditu zait. Hala nola, bertasio ofizialekin bateraezina den historiaren pertzepzio bat, hura idazteaz arduratzen direnek eskaintzen dutena ez bezain ergel edo biguna. Modu berean, ustezko *sexu askapenaren* garaia iritsi zenerako, ni dagoeneko nintzen haren emaitza, aita-amek trabarik gabe gozatu ahal izateko inolako kontsignarik behar izan ez zutela. Niretzat Boccaccio eta Aristofanes beti egon dira egiatik gertu, Sade eta George Bataille bezala, azken hau batez ere, nire inzial berberak baitaramatza.

Gurasoen familia liburuxkan agertzen da 1960ko ekainaren 22an jaio nintzela. Eskolan oso goiz jakin nuen Galileok 1633ko ekainaren 22an Erromako Inkisizioaren

aurrean arnegatu zuela; eta 1940ko ekainaren 22an Pétainek Hitlerrekin armistizioa sinatu zuela bagoi batean. Neure burua kontsolatzearren, jaiotze data modu aljebraikoan idaztera ohitu nintzen; irudipena nuen, oreka ederrean, 22 06 60 zenbaki segidak misteriozko palindromo bat gorderik zeukala, mentura hartatik bereizten ninduen.

1960. urtea, egutegi gregoriarraren arabera, bisurtea izan zen; beraz, ekainaren 22an hasi zen uda. Ni naiz egunak luzatzen ditudana, denbora luzez aldarrikatu dut harrotasunaz. Bizitza ilunagoa bilakatu zitzaidanean, gauak murrizten nituela esatea hobetsi izan dut.

Orain arte nirekin bizi izan diren hiru emakumeek gutxienez bi gauza dituzte elkarrekin: guztiek aitarekin harreman gatazkatsuak izan dituzte eta guztiak irailaren erdialde eta urriaren erdialdearen artean jaio dira, hau da, ekaina baino bederatzi bat hilabete lehenago. Haien eta nire artean, izan ere, beti negua eta udaberria zeharkatu behar zen.

Sortu ninduten datara gehien hurbiltzen dena irailaren 18an jaio zen. Lau egun gorabehera, nire arimaren haragitze delakoaren misterioaren aurrean nengoelako ustea atxiki nezakeen. Bera 1968an jaio zen; orduan nik zortzi urte nituen eta, bederatzi hil beranduago, bederatzi urte beteko nituen. Alabaina, une horretan bertan Marie-Blanche betiko desagertu zen nire aldetik, guztien artean lehenbizikoa. Maiz pentsatu izan dut bi gertakariok elkarri lotuta zeudela eta munduratu berriak bestearen desagerpenaren lekukotza uzten zuela, munduan ez bada, nire bizitzan gutxienez nolabaiteko oreka gordetzearren.



Hiru aste nituen, motor biko hegazkin batek gurasoak eta ni Aljeriatik Lyonera eraman gintuenean, hor nire aitabitxiak jaso behar baikintuen. Hegalaldiak gurasoek oraindik gogoan duten ekaitza harrapatu zuen. Bidaia osoa garrasika eman nuen. Tximistek eta euriak astinduta, hegazkinak alde guztietatik egiten zuen kirrinka. Pilotuak premiazkoa iritzi zion bidaiariak lasaitzera joateari. Nire kapazu gainera makurtuta, baretu nahi izan ninduen; nik negarra areagotu nuen.

Ibilaldi gorabeheratsu horrek bere arrastoa utziko zuen. Haurtzaro osoan amesgaizto berbera eduki dut: buru bat agertzen da nire ohe gainera, bat-batean nireganantz, ezinago geldiro, amiltzen dena. Eta, gero, inoiz ez dut maitasun batetik bestera aldatu, hala nola bizitzaz edo egoeraz, guztia modu ekaiztsuan bizi gabe. Aldaketaz eraiki dudana irudia anabasarekin estuki lotuta dago. Hainbestearino, non iskanbilak zenbaitetan aldaketan sinetsarazi baitit. Iritsi naiz pentsatzera, Aljeriatik Lyonera arteko zerua goxoa izan balitz, xamurtasunez pasako nituela gertaera zenbait, eta apika bizitza bera.

Aitabitxia Lyoneko aldirietan bizi zen, de la Barre jaunaren gazteluan, segizio erlijioso bat aurretik pasatzean kapelua erantzteari uko egiteagatik Erregimen Zaharreko azken justiziatua izan zelako ezaguna. Parke zabal batek

inguratzen zuen gaztelua, XVIII. mendeko oinetxe bat, Valix-en-Velin-eko udalak 1974an eraitsi zuena, bere tokian sagar berde koloreko eraikin bat, arrunta bilakatu den itsu-sitasunekoa, eraikitzeko asmoz. Zelaia, 1961ean oraindik gazteluaren inguruan zabaltzen zena, babes ofizialeko etxe sailen auzoak dira egun, non gogaitasuna matxinadaraino hedatzen baita kilometroetan zehar.

Gurasoek jauregiko hegal batean hartu zuten ostatu; nire aitabitxiak eta bere emazte gazteak, beste batean. Bizimodu maitagarri eta arin honek urtebete iraun zuen. Emaztearen urtebetetzerako, aitabitxiak auto txiki bat erosi zion, berak amesten zuen tankerakoa. Lehen irteeran, platanondo baten aurka talka egin zuen eta bertan hil zen. Aitabitxiak ez zion bere buruari barkatu emazteari heriotza opari eman izana, eta inguratzen zion guztiari biguina hartu zion. Gurasoek lekua utzi behar izan zuten. Nire heziketa erlijiosoaz arduratu behar omen zena ez zuten berriro ikusiko.

Lyonen bertan, Croix-Rousse auzoan gurasoek aurkitu zuten ostatu non hartu. Ez arazorik gabe. Ez zuten dirurik; gure aitak, beltz batekin ezkontzearekin mehatxu egin ondoren, familiarekikoak hautsiak zituen. Amari dagokionez, berak ezin zuen gurasoen laguntzarik izan, Michelin fabriketako langile hutsak izanik, apenas baitzuten beraien beharrak estaltzeko. Beraz, aita lan eske zebilen bitartean, ama ostaturaz ostatu ibiltzen zen, gaua pasatzeko logela baten bila; ia egunero lekualdatu behar zuten, holako tokietan nire presentzia nekez zelako ongi etorria. Zorionez, oso ume zintzoa nintzen eta hor nengoela ezkutatzeari lortzen zuen amak normalean, ostalariaren aurrean igarotzean ni poltsa baten barruan sartuta.

Gurasoek maiz kontatu didate, behin, xentimorik gabe zeudela, hiru egunez jateari uko egin behar izan ziotela, gelditzen zitzaien diru apurra nire biberointzat gordeta.

Baliabiderik gabe, nire aita bere aitarekin harremanean jarri zen. Honek diruz laguntzea agindu zion, “beltzen musikari” uko egiteko baldintzapean. Aitak bere bateria gorde zuen eta Bois-Colombesen kokatu ginen, non nik jakin bainuen bi urte eta erdiko anaia bat banuela; eta berak, aita-amak eta anaia txikiago bat.

Berrogeita bost urte bete zituenean, aitari mini-bateria bat oparitu nion; gauean jo zuen, gero sabaian gorde eta ez zuen berriro jo.

Zenbait afari alai eta ongi bustitan, irratian jazz doinu bat aditzen bazuen, aitak spaghetti poltsa bat irekitzen zuen eta, bi multzotan banaturik, mahai gainean, platerak eta ontziak jotzeko baliatzen zituen; *swingean* aritu ahala, spaghettiak apurtzen ziren eta noranahi hegan egiten zuten; pieza amaitutakoan ez zuen deus eskuetan. Egun batzuk pasa ondoren, oraindik spaghetti zatiak aurki zitezkeen moketan.

Bois-Colombeseko txaleta etxe handia zen, neguan ezin berotuzkoa. Goizetan, eskalera oin eta eskuekin jo beharra zegoen, saguak uxatzeko.

Haurtzain batek anaia eta biok zaintzen gintuen. Guillaumot andrea deitzen zen. Handik urte batzuetara, anaia aitortu zidan gizonetik bere gustua deitura horretatik zetorrela akaso: haren lehen maitaleak Guy zuen izena.